



«OROIPENAK»

Por SABIN OLASCOAGA

Irudi zait atzo izan zirala «Madalen eguna», «Madalen jaiak», «San Juan jaiak», «San Marcialak», «San Fermiñak»... gure erri bazterretako jai alai eta umore onekoak. Amar urte barru nere biotzak artu zituben taupadak, ez dira izan aguro .aztutzekoak, ain izan ziran benetan pozgarriak.

San Juan bezperan, jai alai onetan, nere anaiarekin, Oiartzuna joan nintzan neretzako gauz berri bat ikustera. «Lartaun'go Abesbatza», nere lagun jatorra dan Oñativia zuzendari duana. Abestu zituzten abesti zar aiek enlzutean, negar malkoz bete zitzaikidan begiak. Benetan atsegingarria Oiartzun'en pasa nuen gaua, orrenbeste urte igaro barru, lenengoz joan nintzanian.

Urrengo egunean—San Juan eguna—, Pepito Yanci, nere «Xey'ko» aspaldiko lagun jatorrarekin, gabez, Ernani aldera joan giñan eta an ere arrituta gelditu

nintzan, bertako gaztedi jatorra ikusi ondoren. Zer zan ango umore berdingabea!! Milla eztarri bañan geiago ziraden gau onetan era bereko abest'ak abesten. Oraindik gure izkuntza gogor dabil gure erri geinetan.

Festa auek igaro ondoren, etorri ziran «Madalen jaiak» eta Madalen bezperan, erriko semea naizelarik, nun edo nun muturra sartu nai nuben. Klarinete zar bat topatu nuben eta aspaldian jo ez arren, españak benetan aunditurik, jo nuben gure antziñako «CENTENARIO», gure kale nagusietan. Zer esanik ez dago, ainbeste lagun eta ezagun ikusteak nolako malkoak ixuri zitusten nere begiak.

Azkenik gure eguna, «Madalen eguna». Gure Zaindariaren irudia iñoiz baño politagoa arkitu nuben, gure dantzari, eresbatz, txistulari eta erriko zuzendari danen artean—auek alkate jauna buru zutela—Meza nagusi



bikaña, antziñeko abeslari askorekin, baño...! ni, erabat marrantatuba, entzun besterik ezin egiñean!

Dana dala, zorion beroak alkate jator eta lagun obe dan Mugika'tar Erramun'eri. Festa alai, umore eta pakez betea. Baita ere zorionak, Ansorena abade jator orreri, aiñ ederki zuzentzen dubelako «Andra Mari Abesbatza», naiz lan neketsua izan, bai gogoangarria erriarentzat. Eta Iñaxio Ubiria, gure Eresbatzeko zuzendari gazte berri oneri, nere bosteko maitagarria—oraindik soñu ederra dauka gure Eresbatzak—. Zer esanik ez gure Txistulari bikaiñ aberi, Lixardi buru dutela, egun gogoangarriak gogora arazi zizkidaten. «Boni'ren» alpagata aundiaren azpian, goizeko bederatzitako Zortzikoa jo zutenean. Eskerrak danori!

Urteetan aurrera joan arren, gazte arkitzen nintzan nere lagun zar eta gazte askoren ondoan. Erria goruntz dijoala zer esanik ez dago. Arriturik ibilli nintzan festa

oietan, eta oraindik ez det itxaropenik galdu urte asko baño lenago, Jaungoikoaren laguntzarekin, azken kondarrak bertan igarotzea. Jaunak ala nai dezala!

Nere etxeko senide guzien azken agurrarekin, negar malko asko jaurti ondoren, berriro emen gaude Ipar-Ameriketako, New York onetan, orain amar urte bezela. Jaunaren laguntzarekin lantegi polit bat arkitu det emengo denda zarrenetako batean, eresi sezioan nago eta bertan entzuten ditut egunero txistulari asko—Polentzi Gezala, Donostikoak, eta abar—Coro Easo, Maitea, Bikondoa, Yanci, Zelaia eta beste milla... Oieri eskerrak iduritzen zait nere biotza zuen artean arkitzen dala.

Besterik gabe, gazteok, jarrai aurrera!! Zuen eskue-tan dago Euskalerriko etorkizuna.

Zueri, beti erriko-semea izanik, or dijoakizue nere OROIPENA! biotz biotzez.

